

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1263

255/2022 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Natividad Silva Gordon izendatzen den, aldi baterako, Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentroa-Adikzioak zentroko Osasun Mentaleko unitateburu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, lau urte luzagarriz.

Urriaren 22ko 609/2020 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osasun Mentaleko Unitateburu lanpostu bat betetzeko, lehiaketa bidez, Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentroa-Adikzioak zentroan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean (2021eko urtarrilaren 27ko EHAA 19. zk. eta 2021eko otsailaren 5eko BOE 31. zk.).

Aurkeztu diren eskabideak baloratu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behar den izendapen-proposamena egin du. Kontuan hartuta María Natividad Silva Gordon andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak, erabaki du hura izendatzea, Osasun Mentaleko Unitateburu lanpostua betetzeko Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentroa-Adikzioak zentroan, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Bat etorrita Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau erkidearekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Natividad Silva Gordon andreak izendatzea, aldi baterako, Barakaldoko Osasun Mentaleko Zentroa-Adikzioak zentroko Osasun Mentaleko Unitateburu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Bigarrena.– Izendapena lau urterako izango da; hala ere, luza daiteke, bat etorrita Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau erkidearekin; eta ondorioak izango ditu 2022ko martxoaren 1etik aurrera.

Hirugarrena.– Epea bukatutakoan izendatuak lanpostua utziko du, baldin eta luzapena onartu ez bada; bat etorrita Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikularekin.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango da kargutik, baldin eta aldeztu aurretik kontrako espedientea zabaldu bada, eta aintzat hartu badira ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko 6. atalean aurreikusi diren lekualdatzeko arrazoiak.

Bosgarrena.– Ebazpen hau jakinaraziko zaie interesdunari eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzari.

2022ko martxoaren 17a, osteguna

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osa-
kidezta-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, Ebazpena EHAA
argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2022ko otsailaren 28a.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
CARLOS PEREIRA RODRÍGUEZ.